

Erosketa berdea



JUSTIFIKAZIOA

Erosketa berdea erantzukizunez egiten dena da, hau da, ingurumen-irizpideetan ere oinarritzen den produktuen erosketa, beste produktu batzuekin alderatuta, bizi-zikloan ingurumen-inpaktu murriztua duena. Beharrezkoa da horiek ezagutzea eta identifikatzen jakitea, gure erosketa-irizpideen barruan sartu ahal izateko.

HELBURUAK

- Edozein produkturen erosketaren atzean dauden ingurumen kriterioei buruz hausnarketa piztu.
- Produktuen ontziratze mota ezberdinak ezagutarazi, hurrengo alderdiak kontuan hartuz: birziklapen eta berrerabilpen aukerak, haien birziklatze-bizitza eta ematen zaizkien tratamenduek eragiten duten ingurumen kaltea.

EDUKIAK

- Ingurumenarekiko errespetua erakusten duten etiketak eta haien esanahia.
- Produktu lokalak. Km 0.
- Ontziratze jasangarriaren aukera eta hondakinen murrizketa.
- Erosketa saskiaren analisi kritikoa.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Galdeketa indibiduala, erosketa berdeari buruzko aurretiko jakintzak ebaluatzeko.
- Arropak ingurumenean daukan eraginari buruzko bideoaren bistaratzea eta ondorengo eztabaida.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Ingurumenarekiko errespetua erakusten duten etiketa ezberdinen azalpena eta produktuetan bilaketa eta identifikazioa.
- Ontziratze mota ezberdinen azalpena eta ontzi jasangarriaren aukera.
- Gosarirako erosketa jasangarriaren simulazioa.
- Konklusioak eta bateratze-lana.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Parte-hartzaileentzako teoria banaketa.
- Ingurumen irizpideetan oinarritutako erosketa kritikoa egin denda batean eta argazkia Kontsumobidera bidali.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Konpetentzia zientifikoa.
- Konpetentzia sozial eta zibikoa.

ZEHARKAKOAK

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
- Izaten jakiteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Lan indibiduala.
- Lan kolaboratiboa.
- Lan kooperatiboa.
- Thinking based learning.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none">• Ordenagailua.• Proiektorea eta kanoia edo PDI.	Taldea pantailari eta pertsona hezitzaileari begira esertzen da pantailako ariketak jarraitu ahal izateko.	90'

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.